

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	WEB-ZERBITZARIAREN SOFTWAREAREN INSTALAZIOA ETA KONFIGURAZIOA	Iraupena	90
		Espezifikoa	
Kodea	UF1271		
Lanbide-arloa	INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
Lanbide-eremua	Sistemak eta telematika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Interneteko zerbitzuen administrazioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Web-zerbitzuen administrazioa	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Web-zerbitzuen administrazioa eta auditoretza	Iraupena	90

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0485\_3 WEB-INGURUNE BAT KUDEATZEKO SOFTWAREA INSTALATZEA, KONFIGURATZEA ETA ADMINISTRATZEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Web-zerbitzaria, horren moduluak eta luzapenak hautatzea, emandako Web-aplikazioen exekuzio-baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

- E11.1 Web-zerbitzari batek instalazio-jokaleku jakin batean dituen funtzionamendu-parametroak deskribatzea.
- E11.2 Web-zerbitzari baten ezaugarriak deskribatzea eta merkatuan dauden beste hainbat Web-zerbitzariarekin alderatzea.
- E11.3 Web-zerbitzarietako modulu eta luzapen ohikoenen funtzioak identifikatzea eta deskribatzea.
- E11.4 Konfigurazio-parametro kuantitatiboak eta kualitatiboak dagozkien sistema-baldintzekin lotzea.
- E11.5 Kasu praktiko batean, Web-zerbitzu bat ekoizten ari gara; honako lan hauek egin behar dira:
  - Web-zerbitzarian behar den funtzionalitatea identifikatzea.
  - Karga eta espero den errendimendua kalkulatzea.
  - Segurtasun-maila eta -baldintzak identifikatzea.
  - Web-zerbitzaria eta behar diren luzapenak hautatzea.
  - Sistemaren baldintzak kalkulatzea eta hardware- eta software-plataformarik egokienak adieraztea.

A2: Web-zerbitzaria sistema informatikoan instalatzea eta konfiguratzea, informazioa banatzeko funtzionalitateak eskaini ditzan.

- E12.1 Erabiltzaileak autentifikatzeko eta edukietarako sarbidea izateko mekanismoak deskribatzea.
- E12.2 Abiatze- eta gelditze-prozesuak eta erregistroen biraketa-prozesuak deskribatzea (logak).
- E12.3 Kasu praktiko batean, Web-zerbitzu bat instalatu behar dugu hizpatutako funtzionamendu-premisei jarraiki; honako lan hauek egin behar dira:
  - Sistemak zehazturiko Web-zerbitzaria eta zerbitzua instalatzeko behar diren ezaugarriak betetzen dituela egiaztatzea.
  - Sistemari behar diren baliabideak, sarbide- eta exekuzio-baimenak eta ingurune-aldagaiak biltegitratzeko egitura ezartzea.
  - Zerbitzariaren softwarea instalatzea eta abiatze- eta gelditze-prozesuak eta erregistroen biraketa-prozesuak ezartzea, sistema informatikoaren administrazioarekin zehaztapenei jarraiki.
  - Web-zerbitzarian sarbide-mekanismoak konfiguratzeko: IP helbideak, domeinuak, zerbitzari birtualak eta atakak, sarearen administrazioarekin emandako argibideei jarraiki.
  - Erabiltzaileak autentifikatzeko zehaztutako mekanismoak gaitzea.
  - Web-zerbitzariaren instalazioa eta espero diren funtzionalitateak egiaztatzea.
  - Akatsak gertatzen direneko eragiketa- eta berreskurapen-dokumentazioa sortzea.
- E12.4 Zerbitzari seguruen ziurtagirien kontzeptua, ezaugarriak eta funtzionalitatea azaltzea.
- E12.5 Zerbitzari seguruen ziurtagiriak eskatzeko, instalatzeko eta mantentzeko egin beharreko urratsak deskribatzea.

A3: Sistema informatikoan Web-zerbitzariaren moduluak eta luzapenak instalatzea, konfiguratzea eta integratzea.

- E13.1 Web-zerbitzariaren modulu eta luzapen nagusien -Webgune jakin batean funtzionalitate jakin batzuk estaltzeko jomuga dutenen- funtzioak deskribatzea.
- E13.2 Jasotako zehaztapenen arabera instalatu beharreko Web-zerbitzariaren modulu eta luzapen nagusien konfiguraziorako parametroak identifikatzea.
- E13.3 Modulu eta luzapenak eta Web-zerbitzariak eta bestelako zerbitzu eta aplikazio posibleek elkarren artean dituzten loturak deskribatzea, berezko sistemari nahiz kanpoko sistemari dagokienez.
- E13.4 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean, Web-zerbitzu bat instalatu behar dugu informazioaren banaketako jokaleku batean; honako lan hauek egin behar dira:

- Web-zerbitzariaren modulu eta luzapenen softwarea txertatzea.
- Baliabide gehigarrien sarbide- eta exekuzio-baimenak konfiguratzea.
- Multzoaren errendimendua optimizatzeko parametroak konfiguratzea.
- Bestelako zerbitzu eta aplikazioekiko -lokalekiko edo urrunekoekiko- komunikazioa konfiguratzea eta egiaztatzea.
- Web-zerbitzariaren modulu eta luzapenen behar bezalako instalazioa eta konfigurazioa egiaztatzeke egin beharreko probak xehatzea.
- Akatsak gertatzen direneko eragiketa- eta berreskurapen-dokumentazioa betetzea.

## **Edukiak**

### **1. Zerbitzarien sistemen oinarrizko kontzeptuak.**

- o Eutsitako sistema eragileak.
- o TCP/IPren funtsak
- o Bezero/Zerbitzari egitura.

### **2. Http protokoloaren maneia.**

- o Funtzionamendua eta egitura.
- o Eskaeren edo request method deritzenen deskribapena.
- o Egoera-kodeak.
- o Goiburuak.
- o Edukiaren kodeketa. Kode-orriak.
- o Interneten HTTP eskaerak egitea, proxy baten, livehttpheader deritzenen edo antzeko metodoen bitartez, betiere erabilitako protokoloa aztertuta.

### **3. Web-zerbitzariaren hautaketa.**

- o Funtzionamendu-parametroak.
- o Web-zerbitzariaren ezaugarriak.
- o Funtzionalitate nagusiak.
- o Sistemaren baldintzak:
  - Hardwarea.
  - Softwarea.
  - Konektibitatea.

### **4. Web-zerbitzariaren oinarrizko instalazioa eta konfigurazioa.**

- o Web-zerbitzariaren instalazioa.
  - Instalazio-prozedurak.
  - Zerbitzaria sistema eragilean instalatzea.
  - Instalazioa egiaztatzea.
- o Zerbitzuaren kontrola. Hastea eta gelditzea.
- o DNS sarreren sorkuntza.
- o Oinarrizko konfigurazio-parametroak:
  - Oinarrizko parametroen deskribapena.
  - Ostatze birtualizatua (virtual hosting).
  - Izenetan oinarritutako ostatze birtualizatua (Name-based virtual hosting)
  - Logginga
- o Oinarrizko konfigurazio-direktibak:
  - Entzute-ataka.
  - Erro-direktorioa.
  - Oinarrizko bestelako konfigurazio-direktibak:
- o Konfigurazio-erremintak.
- o Zerbitzuaren mantentze-lanak.

### **5. Web-zerbitzariaren moduluak eta luzapenak.**

- o Web-zerbitzariaren modulu eta luzapenen deskribapena.
- o Hizkuntzetarako euskarria:
  - CGI.
  - Script-motoreak (ASP.NET, PHP...)

### **6. Web-zerbitzariaren segurtasunaren azterketa**

- o Web-zerbitzariaren oinarrizko kontzeptuen deskribapena:
  - Bideak eta baimenak. Irakurketa-baimena vs exekuzio-baimena.
  - Direktorioen zerrenda.
  - Baimendutako MIME motak.

- o Jatorrizko IP bidezko sarbide-kontrola.
- o Sarbide-kontrola erabiltzaileen arabera:
  - Egiaztagiri-elkatrakerako metodoak (Oinarrizko Autentifikazioa / Digest / NTLM)
  - Egiaztagirien gordailua. (LDAP, datu-basea, testu fitxategiak, Windows)
  - Pasahitzarekin babestutako direktorioen konfigurazioa.
- o Https bitarteko Konexio seguruen identifikazioa:
  - Segurtasun-ziurtagiriak.
  - Enkriptatze-algoritmoak.
  - Ziurtatze-entitateak.
  - CSR baten sorkuntza.
  - Norberak sinatutako ziurtagiri baten sorkuntza.
  - Ziurtagiri baten instalazioa.
  - Bezero-ziurtagiriaren bidezko sarbide-kontrola.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagapenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Interneteko zerbitzuen administrazioa